

# XagunArtea

2011ko martxoaren 21a

Xagun aldizkaria

63. alea

## Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia apirilaren 4an



Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliaren lehen etapa Zeraindik pasako da apirilaren 4an, astelehenez. Zumarraga-Zumarraga etapa Aztiri aldetik etorriko zaigu herrira. Aurreikuspenen arabera 16:14 eta 16:31 bitartean iritsi beharko lukete txirrindulariek Zeraingo gainera. Ondoren, Segura aldera jaisten hasi eta Otatzan Barbari aldera joko dute. Barbariko gaina hirugarren mailako mendate puntuagarria izango da. Handik Zegamako Kalekora jaitsi eta Segura aldera joko dute ziklistek. Eguraldiak laguntzen badu, kirol-ikuskizun politaz gozatzeko aukera izango dugu herrian.

### Iduzkilore taldearen antzerkia



Martxoaren 12ko iluntzean, Iparraldeko Iduzkilore taldeak *Lapurdi 1609-1909*, gertakizun lazgarrien oroimenez izeneko antzezlanaren eskaini zuen Zeraingo elizan, kultur elkar-tek eta Iparra-Hegoa ekimenak elkarlanean antolatuta.

### Bertso-afaria emakumeen alde



Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko bertso-afaria egin zen martxoaren 12an Alaia Martin eta Amaia Agirre bertsolariekin Oiharten. Giro ederrean ospatu zuten han bildu ziren haur, gazte, emakume eta gizonak.

## Udaleko zerrenda osatzeko 2. itzuliko bozketa

Maiatzeko udal hauteskundeetarako herritarren zerrenda osatzeko prozesuan, bigarren itzuliko bozketa egin zen otsailaren 27an. Boto eskubidea zuten 222 herritarretatik 183k eman zuten botoa, hau da, partehartzea %86koa izan zen. Boto bakar bat egin zen zurian.

Bigarren itzuli honetan, lehen bozketan boto gehien atera zituzten 15 pertsonen arteko izenak aukeratu behar ziren: gutxienez izen bat eta gehienez zazpi jarrita boto bakoitzean. Honela banatu ziren botoak 15 pertsona horien artean:



1. Jose Manuel Oria: 135 boto
2. Aitziber Makazaga: 122 boto
3. Andoni Alustiza: 109 boto
4. Joxe Mari Telerría: 107 boto
5. Arantzazu Muñoa: 107 boto
6. Itxaro Alustiza: 104 boto
7. Haritz Iztueta: 100 boto
8. Amaia Junkera: 56 boto
9. Arantxa Ruiz de Larrinaga: 56 boto
10. Ion Muñoa: 30 boto
11. Igor Ojanguren: 20 boto
12. Andoitz Iztueta: 18 boto
13. Haritz Eguren: 15 boto
14. Maria Jexux Mendizabal: 11 boto
15. Xanti Muñoa: 8 boto

### Bost ibilbide botaniko seinalizatu dira

Zerainen zehar bost ibilbide botaniko prestatu eta seinalizatu dira. Ibilbide hauek gure kulturaren bertako landare-diaren usadiozko erabilpena jaso eta guztion artera zabaltzea dute helburu. Gaika banatuta, hauek dira ibilbideak: herri ingurukoa, artzaintzari buruzkoa, baserriari lotutakoa, meategien gainekoa eta Aizkorri Aratz Parke Naturalekoa (Aldundiarekin elkarlanean prestatu da hau eta parke naturalerako sarrera moduan pentsatu da. Ibilbidea markatzeko, batetik seinaleak jarri dira herrian eta bestetik arrastoak markatu dira mendian.



### Trakziodun ibilgailuen gaineko zerga

Udalak herritarrei jakinarazi nahi die trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko garaia iritsi dela. Martxoaren 31n hasi eta maiatzaren 31 arte (bi hilabete) izango da zerga hori ordaintzeko epea. Aurrez beren kontu zenbakia helbideratuta dutenei, epe horren lehen egunetan kobratuko zaie kontutik zerga. Helbideratu gabe dutenek berriz, martxoaren 31tik maiatzaren 31 bitartean izango dute Udaletxean bertan ordaindu ahal izateko, astelehenetik ostiralera bitartean.

### Eskolako hurrek inauteriak ospatu dituzte



Eskolako hurrek inauteriak ospatu zituzten martxoaren 7an, guraso, lagun eta herritarrei antzerkia eskainita, eta ondoren dantza, jolas eta meriendarekin.

### Lehendakari bola txapelketaren 4. jardunaldia jokatu da

Martxoaren 20an *Lehendakari* bola txapelketaren 4. jardunaldia Zerainen jokatu zen. Guztira 52 partaide izan ziren eta denen artean nagusi Jose Antonio Ugarteburu izan zen 48 birla jota. Desenpatean gailendu zitzairen baita ere 48na jo zituzten Benito Loitegiri eta Juan Goenagari. Laugarren postuan Jose Antonio Lasa izan zen 47 birla botata. Lehen lauretan ezin izan genuen herriko bolari-rik ikusi. Ea hurrengoan!





## Erresumiñe, erresumindu, sumindu

Umetako pasadizoa du Elenak gogoan, besteak beste, *erresuminaz* hitz egiterakoan. Honela dio berak: "nik gogoan dut umetan zenbat negar egin nuen, elurretan ibili eta eskuak eta hankak hotzez ia izoztuta etxeratzean. Su ondoan jartzen nintzen, hotzaren ihesi. Berotutakoan, *erresumindu* egiten zitzaizkidan eskuak." Gorputzaren, kasu honetan eskuen, erantzun fisiologikoa adierazten zuen *erresuminak*: hotz-beroak eragindako erreakzio atsekabea. Elurretan ibiltze hori ez zen, itxuraz, beti-beti gogo-grinak eragindakoa izaten. Baserriko lanak ere eragiten zuen halakorik, sarri asko.

Temperatura-aldaketa bat-batekoak eragindako fenomenoaz ari gara hor, ezer baino lehen. *Erresumina* ez du, ordea, hotz-beroak bakarrik eragiten. Bestela ere sentitzen da *erresumina*. Ebakuntza egin berri dioten lagun bat bisitatzea joan da Elena, aurreko batean, eta honela esan dio lagunak: "kanpoko ebakiak sendatu zaizkit, eta barrukokak ere hartan ari dira noski, baina hala azkura edo *erresumin* bat daukat!".

Bistan dago, beraz, gertaera fisiologikoa hutsaz gainera kontzeptu zabalago baten aurrean gaudela. Pertsonen sentiera, sentzazioa eta atsekabea biltzen dituen balio anitzeko kontzeptu zabal baten aurrean. Elenak horrela definitu du hitza: "Gorputzeko hainbat ataletan izaten den sentipen bat izaten da *erresumiñe*". Hiztegiari jo dugu, ohiko moduan, hitza nola definiturik datorren ikusteko. Hona OEhk zer dioen: *escozor*, *picor*. Baita beste hau ere, ordea: *resentimiento*, *rencor*. Horraino iristen da, antza, *erresuminaren* adiera-esparrua. Bere aditz-formaz, *erresumindu* hitzaz alegia, honako hau dio OEhk: *sahornado*. Beste hitzetan esanik, *escocido* edo *irritado*.

Hitz "garrantzitsu" baten aurrean gaude. Sentiera fisiologikoa jakinaz gainera psikologiazko kontzeptu multzo argia adierazteko ere aparteko balioa duen hitza da *erresumina* (eta hortik datorren *erresumintzea*). Gizakion ongi-izate fisiologikoz gainera atsedean edo atsekabe animikoa adierazteko orduan eskueran behar dugun hitza da. Hitzunen zenbait sentiera, gorputz eta anima, ondo biltzen dituen eta, horren-

bestez, lehen bezain aplikazio-ahalmen zabalak izan behar lukeena.

Galtzen ari da, ordea, hitza. Elena saiatu da, beste hainbatetan bezala, adin-tarte bateko eta besteko zeraindareei galdetzen. Ba al dakizu *erresumina* zer den? Ondorio argi samarra atera uste du: bertako zahar askok badaki *erresumina* (*erresumintzea*) zer den; badaki eta, behar denean, hartaz baliatzen da. Gaztexeagoek, aldiz, badakite hitzak zer esan nahi duen baina ez dute erabiltzen. Herritar gazteenek, azkenik, apenas ezagutu ere egiten duten. Hitza erabiltzeari utzi dioten zeraindaren adin-muga, 40 urte inguruko jira-buelta horretan dago, itxura denez. Hortik gorakoak hitzaz baliatzen dira, hortik beherakokak ez. Hor jarri du Elenak, zenbait herritarri galdera zuzena egin ondoan, hitzaz baliatzen diren eta ez diren zeraindaren arteko langa.

Txostena amaitu ondoan Mandiora jaitsi naiz eta han egin dut topo hainbat lagunekin. *Erresumin* kontua atera da hizpidean. Datu kuriosoa agertu zaigu orduan: Gartziak badaki *erresumina* zer den. Luisek eta Xantik, aldiz, ez dakite edo ez daukate argi. Hobeto esanik, antzeko hitz-forma erabiltzen dute *erresuminaren* ordez: *sumina* eta *sumindu*. Ez naiz harritu: azken forma hori ere jasorik zuen Elenak, bere bilketa-lanean. Goian esandako adin-mugaren kontuari beste esplikazio bat eman beharko diogu hortaz. Adin batetik gorakoen artean batzuek *erresumin(du)* erabiltzen dute, eta besteek *sumin(du)* edo *zumin(du)*.

Gauza bera al dira bata eta bestea? Baliteke. Definizio bila joanik, honela azaltzen du OEhk *sumin* hitza, izen gisa: batetik *furor*, *furia*; bestetik *irritación*, *escozor*, *picor*, *dolor producido por el frío*. Baliteke beraz *erresumin* hitzaren iturria *sumin* izatea. Horra nola: *erre+sumin*. Hipotesi hutsa da hori, ordea. Kontua da *sumin* horrek, eta bere eratorriek (*suminaldi*: momento de irritación; *suminarazi*: hacer encolerizarse; *suminbera*: irascible; *sumindu*: enojarse, enfurecerse, irritarse; *sumindura*: furia, cólera, saña, ferocidad; *sumingarri*: doloroso, irritante; *sumin-*

*kor*: irascible, irritable) gizakion gogoaldarte jakinen adiera egokia, zehatza eta beharrezkoa eskaintzen dutela.

Hori horrela izanik, zergatik ari da (*erre*)*sumina*, (*erre*)*sumintzea* galtzen? Sentiera fisiologikoa hutsetik abiatuz gogoaldarte jakinak adierazteko hain baliagarria baldin dugu hitz-multzo hori, zergatik ari da galtzen? Nire erantzuna, behin-behinekoa, hau da: *Resentimiento*, *rencor*, *escozor*, *irritación* etab. esateko erdal hitzetara jotzen dugu sarri, euskarazko horien ordez. Horrelakoetan antzematen da argien, nire ustez, erdararen eragina euskaldunon artean zein bizia den. Betidanik eza-guna izan dugun sentimendu nabarmena nola esan ez dakigularik, Urtia "erresuminduta dago" edo "ipurterretuta dago" esan ordez "moskeatuta dago, kabreatuta dago" edo antzekoren bat esaten dugu sarri. Atsekabezko sentiera adierazten duten euskal hitz biziak, gatz-piperrez beteak, gizakion aldarte-giroa era grafiko-sarkorrean aditzera eman ohi dutenak, erdaratik hitzez edo esamoldeez ordezkatzen ari gara gero eta sarriago. Kasu hauetan ezin esan, beste askotan ohi dugunez, aldaketa ekonoteknikoak ekarritako emaitza denik jatorrizko euskal hitzaren galera. Kasu honetan ez da tramunkulu zaharkitu bat, baserriko lan-tresna edo lan-jarduera xaharkitu bat galtzen ari, eta tresnarekin batera hura adierazteko hitza. Besterik da oraingoan motiboa. Gure sentimendu barrenkoi-intimoak, etxeko zein lagunarteko berritsuketa gatz-piperdunetan ezinbestekoak, erdi-euskaraz erdi-erdaraz ezpainetaraten ditugu maiz. Euskara-erdaren arteko kontaktak (funtsean, jatorrian elebakar ziratekeen konstelazio etnolinguistiko biren interakzio sendoak) berekin dakarren ondorio jakinetako bat da hori: hiztun elebidunon nagusitasun-moldaera jakin baten (erdarak gero eta pisu handiagoa duen moldaera psikolinguistiko baten) errainu. Urrutira eramango gintuzke ordea, Uriel Weinreich-en eta geroztikakoen eskutik, gogoeta-bide horrek. Utz dezagun kontua, gaurkoz, bere horretan.



## Xagu-txoko



Babesetik

OTSAILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
		<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>
Euria (l/m)		0	1,5	0	0	0	0
C° altuena		6	10	13	18	18	21
C° baxuena		3	3	5	3	0	-2
	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>13</b>
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	5
C° altuena	24	22	22	21	21	12	12
C° baxuena	2	1	4	4	6	3	2
	<b>14</b>	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>19</b>	<b>20</b>
Euria (l/m)	6,5	2	1,5	0	0	6	7
C° altuena	16	14	15	18	19	12	19
C° baxuena	2	6	1	2	6	7	3
	<b>21</b>	<b>22</b>	<b>23</b>	<b>24</b>	<b>25</b>	<b>26</b>	<b>27</b>
Euria (l/m)	42	35	11	0	0	4	16
C° altuena	12	12	15	17	20	20	12
C° baxuena	4	9	10	8	6	5	5
	<b>28</b>						
Euria (l/m)	30	GUZTIRA: 167,5 l.					
C° altuena	8	ALTUENA: 24°					
C° baxuena	3	BAXUENA: -2°					

## Udaberri usaina neguaren erdian

Otsaileko eguraldiaren datuei erreparatuta, martxokoak edo apirilekoak ere izan zitezkeela pentsa dezake batek. Ez du elurrik egin, temperatura hotzera 2 gradu bakarrik jaitsi da zerotik, eta egun dezentetan iritsi da termometroa 20 gradura. Euriari dagokionez, berriz, lehen hamabostaldia ia erabat ateri egin ostean, azken bi asteetan errekatxoak mugitzeko adina ere bota zuen.



## Apirilaren 13an iritsiko da Korrika



AEK-k antolatzen duen euskararen aldeko *Korrika* ekimena apirilaren 13an iritsiko zaigu herrira. Bi urtez behin egiten da Korrika Euskal Herri guztian zehar eta aurten hamazazpigarren edizioa izango da: *Maitatu, ikasi, ari... euskalakari* goiburua izango duena. Azken bi aldietan bezala, aurten ere pasako da Zeraindik: **apirilaren 13an, astazkenez, eguerdiko 13:30ak aldera** (ordu zehatza aurrerago iragarriko da). Herrian Korrikaren inguruko kontuak antolatze-ko, eta Korrikaren alde beste zer ekintza antolatu daitekeen lantzeko, martxoaren 23an, bilera irekia egingo da Kultur Etxean iluntzeko 7etan. Herriar denak gonbidatuta zaudete!

## Euskararen transmisioa eta herrigintza hizpide martxoaren 31n

Martxoaren 31n, osteguna, Jackeline Urlak, antropologiako doktore eta Massachusetts-eko Unibertsitateko irakasle denak, hitzaldia emango du Zerainen. Euskararen transmisioak herri-garapenean duen eragina ikertu du hainbat urtez estatubatuarrak, eta Zeraingo kasua ere gertutik ezagutzen du. Joan den urtean Portugalgo Evoran egin zen ondarearen nazioarteko kongresuan *Zerain: hitza, harri, herri* izeneko ponentzia eman zuen Jakoba Errekondorekin batera. Hitzaldi hura oinarri hartuta arituko da herrian. (Hitzaldia gaztelaniaz izango da).

## Liztormendiko junta

Liztormendi elkartearen urteko batzar orokorra apirilaren 16an, larunbata, egingo da goizeko 11:30etan. Urteko kontuen gorabeherak, junta aldaketa eta gainontzeko gaiak landuko dira.